

TESTU BATERATUA

OHARRA: Dokumentuak informazio izaera du eta EZ du balio juridikorik

AURKIBIDEA

Arrazoiak azaltzea

I. TITULUA. - Xedapen Orokorrak

1. artikulua. - Arauaren helburua

2. artikulua. - Arauaren aplikazio-eremua

II. TITULUA. - Parte hartzeko eskubidearen edukia eta hori gauzatzeko udal bideak.

I. KAPITULUA. - Informazioa

1. Sekzioa. - Informazioa jasotzeko eskubidea

3. artikulua. - Informazioa jasotzeko eskubidea

4. artikulua. - Artxiiboak eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea

5. artikulua. - Abian diren prozedurei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea

6. artikulua. - Aurrekontuen egoera ezagutzeko eskubidea

7. artikulua. - Udalaren erabaki eta jardueri buruzko informazioa ezagutzera ematea

2. Sekzioa. Informazioa eskaintzeko udal antolamendua

8. artikulua. - Herritarren Arretarako Zerbitzua

9. artikulua. Informazio-sistemak

10. artikulua. - Udalaren hedabideak

11. artikulua. - Udalaren web gunea

II. KAPITULUA. - Parte-hartze aktiboa

1. Sekzioa. Parte hartzeko eskubidea

12. artikulua. - Parte hartzeko eskubidearen edukia

13. artikulua. Eskaerak egiteko eskubidea

14. artikulua. - Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea

15. artikulua. - Ekimenerako eskubidea

16. artikulua. -Herri-kontsulta

17. artikulua. -Entzunaldi publikorako eskubidea

18. artikulua. -Herritarren galdera-eskarien -txanda kide anitzeko organoen bilkuretan.

19. artikulua.- Kontseiluetan esku hartzeko eskubidea

2. Sekzioa. Parte-hartzea sustatzeko bitartekoak

20. artikulua. -Parte hartzeko eredia

21. artikulua. -Udal ordezkariengana jo ahal izatea

22. artikulua. -Partaidetzarako udal agenda
23. artikulua. -Parte hartzeko metodologiak erabiltzea
24. artikulua. -Aurrekontu Parte-hartzaileak
25. artikulua. -Auzoetako partaidetza komunitariorako prozesuak
26. artikulua. -Eztabaida-tailerrak
27. artikulua. -Interesa duten pertsonen zerrendak
- III. KAPITULUA. -Parte hartzeko eskubideen defentsa
28. artikulua. -Iradakizun eta Erreklamazioetarako -Batzorde Berezia
29. artikulua. -Herritarren Defendatzailearen Bulegoa
- III. TITULUA. -Parte hartzeko organoak
30. artikulua. -Partaidetza-kontseiluen sarea
31. artikulua. -Gizarte Kontseilua
32. artikulua. -Kontseilu Sektorialak
33. artikulua. -Kontseilu Sektorialen erregulazioa
34. artikulua. Lurralde-partaidetzarako guneak
- IV. TITULUA. -Gizarte zibila indartzea
- I. KAPITULUA. -Udal Politikak
35. artikulua. -Jardunbide Egokia
36. artikulua. -Herritartasun-balioetan hezteak
37. artikulua. -Boluntarioak
38. artikulua. -Bitartekaritza komunitarioa
39. artikulua. -Hiritar merezimendua
- II. KAPITULUA. -Elkartegintza sustatzea
40. artikulua. -Elkarteen sarea
41. artikulua. -Elkartegintza Sustatzeko Programa
- III. KAPITULUA. -Herritarren Elkarteak
1. Sekzioa. - Herritarren elkarten definizioa eta erregistroa
42. artikulua. -Herritarren Elkarten Definizioa
43. artikulua. -Herritarren Elkarten Erregistroa
44. artikulua. -Izena eman dezaketen elkarteak
45. artikulua. -Eskaera-orria eta aurkeztu beharreko agiriak
46. artikulua. -Eskaerari buruzko ebazpena
47. artikulua. -Datuak aldatzea eta izen-ematea urtero berritzea
48. artikulua. -Herritarren Elkarteak ezagutzea
49. artikulua. -Erregistroan baja ematea eta ondorioak
2. Sekzioa. - Herritarren elkarten eskubideak eta betebeharrak
50. artikulua. -Herritarren elkarten eskubideak

- 51. artikulua. -Udalaren baliabide eta bitartekoak eskuratzea
- 52. artikulua. -Udal interes publikoaren adierazpena
- 53. artikulua. -Udal interes publikoa adierazteko espedientea
- 54. artikulua. -Udal interes publikoa adierazteak berarekin dituen eskubideak
- 55. artikulua. -Udal interes publikoaren adierazpena baliogabetzea
- 56. artikulua. -Jarduera Programa
- 57. artikulua. -Erantzukizuna
- 58. artikulua. -Ez-betetzea

Xedapenak

Xedapen Gehigarriak

Lehen Xedapen Gehigarria: Udal jarduerak sustatzea

Bigarren Xedapen Gehigarria: Topaketa eta batzarretan parte hartzea.

Hirugarren Xedapen Gehigarria: Udal erabilera publikoaren adierazpena erdiestea.

Xedapen Iragankorrak

Lehen Xedapen Iragankorra: Herritarren elkarteen Erregistroan izena emateko baldintzak egiaztatzea.

Bigarren Xedapen Iragankorra: Kontseiluen funtzionamendu-arauak eta parte hartzeko sistemak

Xedapen Indargabetzaile Bakarra

Amaierako Lehen Xedapena

Amaierako Bigarren Xedapena

ARRAZOIAK AZALTZEA

Udalaren jardunbide egokirako ezinbestekoa da erakundeek interes orokorraren alde erabakiak hartzeko eta jarduteko gaitasuna edukitzea etengabe, betiere herritarren eskaerak eta egoerak kontuan izanik.

Administrazioek beharrezkoa dute beren eskumeneko gaietan herritarrek duten iritzia jakitea, gizarte-eskakizunei erantzun bat ematen ahalegintzeko. Eta halaber, beren erabaki eta jardueren erantzukizuna hartu behar dute haien aurrean.

Donostiako Udalak, horretaz jabeturik, herritarren partaidetza sustatzeko politikak bultzatzearen aldeko erabaki sendoa hartu du, uste osoa baitu herritarrek udal gai publikoetan parte hartzeak eta jarduteak sistema demokratikoa indartzen eta sakontzen laguntzen duela, betiere gobernagarritasun eredu berri bat garatzeko helburuarekin.

Azkeneko urte hauetan Gobernuak partaidetza-eskubidea sustatzeko abian jarri dituen programak eta baliabideak ugariak izan dira. Aholku -batzorde sektorialak, Gizarte Foroa, proiektu jakinen inguruko lan-taldeak, herritarren tailerrak, partaidetza bidez esku hartzeko guneak, auzoetan partaidetza komunitariorako planak, hirigintza-proiektuen inguruko kontsulta eta eztabaiden deialdiak, Parkeetako tutoretzak, aurrekontu parte-hartzaileak, entzunaldi publikoak, haurrek parte hartzeko proiektuak, Agenda 21 prestatzeko partaidetza-prozesuak, Plan Estrategikoa prestatzekoa, Hiri Antolaketarako Plan Orokorra, zeharkako planak (Gazte Plana, Berdintasun Plana, Drogamenpeketasunena, Immigrazioarena, Mugikortasunarena, Ibilerraztasunarena, Euskararena), eremu horietan esku hartzen duten eragile eta herri-kolektibo desberdinen parte-hartzearekin prestatuak, eta horiek guztiek gure hiriko partaidetzaren puzzlea osatzen dute. Sare-egitura horren bitartez, herritarren parte-hartzea Donostiako Gobernuaren aukera estrategiko bat izatea lortu nahi da.

Ekintza horien guztien helburua elkartearen sareak nahiz norbanako gisa diharduten herritarrek talde-lanean aritzea eta horretan esku hartzea da, helburu garbi batekin: Herritarrek udal kudeaketaren edozein arlotan benetan esku har dezatela sustatuko duen partaidetza-eredu bat bultzatzea.

Herritarren partaidetza-prozesuak sustatzeko lan horretan Udalak eta herritarrek duten gaitasuna hobetzeko, eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz, beharrezkoa da herritarren eskura jarritako bitarteko eta baliabideak erregulatuko dituen arau organiko bat prestatzea, parte hartzeko eskubide hori hobeto eta eraginkorrago gauzatu ahal izan dadin.

Egia da per se arauak ez dutela partaidetzarik sortzen; hori ez da dekretuz eraginkor bilakatzen. Nolanahi ere, partaidetza errazteko neurrien testuinguru zabalago baten barruan erregulazio on bat izateak eskubide hori gauzatzen lagundu dezake.

Horrela, Arau hau herritartasun aktiboa sustatzeko eta, beraz, tokiko demokrazia indartzeko estrategia zabalago baten testuinguruan kokatuko litzateke. Herritarren Partaidetzarako Plan Zuzendari baten parte da, eta dokumentu-marko horretan zehaztuko lirateke Udalak sustatzen duen herritarren partaidetza hori bultzatzeko irizpideak eta ildo politikoak. Plan horrek udal antolamendu osoari eragiten dio, partaidetza-eredua zehaztuko duen plangintza-tresna den aldetik, partaidetzarako mekanismo eta proiektu desberdinak egituratuz eta bateratuz, eta proposatutako helburuak lortzeko aukera emango diguten printzipio metodologikoak eta estrategia bateratuak eskainiz.

Ez da ahaztu behar parte-hartzea herritarren eskubide bat dela eta administrazio guztiek irekitasunez bermatu eta sustatu behar dutela. Baina parte-hartzea ez da informazioa jasotzea bakarrik, ezta jarduera edo proiektu jakin -batzuei buruzko iritzia ematea bakarrik ere. Sistema demokratikoaren kalitatea erdiesteko asmo horretan herritartasuna garatzeko tresna eraginkor bat prestatzea da xedea. Ez da aukera politiko bat, ezta gobernu jakin -batzuek egindako oparia ere, baizik eta gure sistema demokratikoaren oinarrian dagoen eskubide bat.

Asmo horrek berarekin darama tokiko demokrazia sakontzearen kontzeptua, udalaren jardunaren funtsezko ardatz gisa harturik, eta beraz, konpromiso politiko argia eskatzen du, hots, pertsonekin batera eta ez pertsonentzat bakarrik gobernatzeko borondatea.

Partaidetza administrazio-egitura oso-osoari eragiten dion eta kohesio bat ematen dion zeharkako ardatza da. Horrenbestez, Udalaren borondatea herritarrek parte hartzeko zeharkako politika bat eraikitzea da, udalaren jarduera guztiak bilduko dituen eta proiektu baten edozein fasetan gauzatu ahal izango dena: Bai egoeraren azterketa eta diagnostikoa egitean, proposamenak landu, negoziatu eta adostean, eta baita udalaren jarduerak gauzatzean eta ondoko balioespena egitean ere.

Udal politikaren orientabideak honako zutabe nagusi hauek izango ditu: Demokrazia parte-hartzailea garatzea, Donostiako gizartearekin hiriaren garapen iraunkorra erdiesteko programa zehatzei buruz hitz egitea, giza eskubideak babestu eta defendatzea –bereziki, egoera txarrean bizi diren gizarte-taldeen eskubideak–, gizon eta emakumeen artean benetako berdintasuna sustatu eta lortzea, eta arrazakeria eta xenofobiaren aurrean kulturen arteko elkarriketa bultzatzea.

Hori guztia, parte hartzeko eskubidea aitortzen duen Konstituzioaren 23. artikuluan aurreikusitakoa betez eta 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz, horrek agintari publikoei ezartzen baitie jarrera aktiboa izan behar dutela eskubide hori sustatzeko.

Ildo beretik, gure Autonomia Estatutuak, bere 9,2 artikuluko e) apartatuan dio euskal botere publikoek erraztu egingo dietela herritar guztiei Euskal Herriko bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzeko aukera.

Halaber, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aipatzen du pertsonen eskubidea dutela gai publikoei buruzko erabakietan zuzenean nahiz zeharka parte hartzeko (21. artikulua), eta horixe dio Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak ere bere 12.2 artikuluan.

Bestalde, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeak, bere 69.1 artikuluan dio Udalbatzek beren jarduerari buruzko ahalik eta informaziorik zabalena eskainiko dutela eta herritarrek udal bizitzan parte hartzea bultzatuko dutela.

Nolanahi ere, eta indarreko araudian jasota dagoen arren, partaidetza ez da egonkor irauten duen gai bat. Herritarren Partaidetza dinamikoa da, etengabe elikatu beharra dago, eta bera mugitzen den ingurunearen arabera aldatzen eta egokitzen da. Prozesu pedagogiko bat da, fase desberdinak dituena, informazioaren fase oinarritzkoenetik hasi eta erabakiak hartzeko orduan erantzukizun partekatuaen fase aurreratueneraino doana.

Horregatik, beharrezkoa da, halaber, herritarrek udal politikan parte hartzeari buruzko kontzeptu berri baten alde herritarrek apustu egitea, errebindikazio-eredu soilak proposatzen zituzten inertzia historikoak gaindituz, Toki Erakundearen eta herritarren arteko inplikazio eta lankidetzaren kultura batera igarotzeko. Bai Donostiako Udalak eta bai Donostiako gizarteak ere Herri Administrazioaren eta tokiko demokraziaren ikuspegi ireki eta leiala merezi dute, herritarren partaidetzarekin loturik.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Arauaren helburua

Arau honen xedea Donostiako herritarren partaidetza sustatzea eta garatzea da, bertako demokraziaren gardentasuna eta kalitatea bermatuz.

Helburu hauexek lortu nahi dira:

1. Herritarrek udal kudeaketari buruzko informazio argia eta zuzena jaso dezatela sustatzea.
2. Herritarrek hiriaren interes orokorrak kudeatzen eta babesten esku har dezatela erraztea, partaidetzaren aldeko kultura hedatuz.
3. Parte hartzeko eskubidea osatzen duten alderdi desberdinak zehaztu eta arautzea, baita aitortzen diren eskubide horiek bete ahal izateko bide eta organo desberdinak ere.
4. Sektore, lurralde nahiz hiri mailako partaidetzarako organo eta baliabideen sare bat egituratzea, parte hartzeko aukera eskaintzeko.
5. Gizarte zibila indartu dadila sustatzea, elkartasunaren, besteekiko errespetuaren, erantzukizun partekatuaen eta gizarte-kohesioaren gizarte-balioak zabalduz eta elkarte-sarea garatu eta indartu dadila sustatuz.
- 6. Erreferendumak ez diren hiritar kontsulten bidez herritarrek politika publikoen gainean zer iritzi duten jakiteko modu batzuk antolatu eta garatzea.**

* 6. atala erantsi da, Udalbatzak 2015eko urtarrilaren 29ko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin bat.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/04/13/c1503188.pdf>

2. artikulua. Arauaren aplikazio-eremua.

1. Hiriarekin duten harremana dela eta –harreman hori edozein izaeratakoa izanik ere– udal organoek hartzen dituzten erabakiek eta udal gobernuak burutzen dituen jarduerak eragiten dieten pertsona fisiko eta juridiko guztien partaidetzari buruzkoa da arau honetan jasota dagoen erregulazioa.

Nolanahi ere, Arau honetan erregulatuta dauden zenbait eskubide gauzatzeko, udalerriko herritar izatea edo, taldeak izanez gero, herritarren elkarte izatea eskatuko da.

2. Biztanleen Udal Erroldan izena emanaz erdiesten da herritar-izaera.

3. Arau honen ondorioetarako, herritarren elkartearen izaera Herritarren elkartean Udal Erregistroan izena emanaz erdiesten da, arau honen IV. Tituluan aurreikusita dauden prozeduren bidez.

II. TITULUA

PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAREN EDUKIA ETA HORI GAUZATZEKO UDAL BIDEAK

I. KAPITULUA. INFORMAZIOA

1. SEKZIOA. Informazioa jasotzeko eskubidea

3. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidea.

Herritarren partaidetzak aldez aurreko eta ezinbesteko baldintza du informazio on eta zabala, gardena, objektiboa eta kalitatezkoa edukitzea.

Pertsona guztiek dute informazioa jasotzeko eskubidea, goian adierazitako hitz horietan, udal jardueri buruzko ezagutza argia eta egiazkoa edukitzeko.

Edozein pertsonak du udal jardueri buruz, horien aurrekariari buruz eta, oro har, udalaren zerbitzu eta jarduera guztiei buruz interesatzen zaion informazioa eskatzeko eskubidea, indarreko lege-xedapenekin eta Arau honekin bat etorritik.

4. artikulua. Artxiboak eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea.

Pertsona guztiek Udalaren ekintza eta erabakien eta horien aurrekarien kopiak eta egiaztagiriak jasotzeko eskubidea dute, baita udal artxibo eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea ere, indarrean dagoen legerian aurreikusita dauden hitzetan eta mugekin.

Udal administrazioak eskubide hau ukatzeko edo mugatzeko, ebazpen arrazoitu baten bidez egiaztatatu beharko da.

Hilabeteko epean erantzun beharko zaie egindako eskaerei.

5. artikulua. Abian diren prozedurei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

Pertsonak eskubidea dute interesatu gisa ageri diren prozeduren izapideen egoera ezagutzeko eta horietan jasotako agirien kopiak eskuratzeko, baita informazioa eta orientabideak jasotzeko ere, egin nahi diren jardueretarako eskatutako baldintzei buruz.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedapen orokorrak prestatzeko aurreikusitako prozeduran, aurreikusitako entzunaldi-izapidea eskainiko zaie herritarren elkartei, baldin eta horien helburu soziala edo xedea erregulatu beharrekoarekin zuzenean loturik baldin badago.

6. artikulua. Aurrekontuen egoera ezagutzeko eskubidea.

Pertsona guztiek eskubidea dute Udalaren aurrekontu arruntaren izapide eta exekuzio-mailaren izapide-egoera zein den ezagutzeko.

7. artikulua. Udalaren erabaki eta jardueri buruzko informazioa zabaltzea.

1. Udalak bere esku dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu udal jarduerari buruzko informazioa emateko eta hiri osoan ahalik eta zabalkunderik handiena erraztuko du. Herritarren partaidetzarekin loturik egiten diren ekintza eta prozesuen berri emango da Bereziki, organo eskudunak onetsitako hirigintza-planak eta proiektu estrategikoak, jendaurreko informazio-epeak eta jardueren agenda emango dira ezagutzera.

2. Udal jardueri buruzko informazioan, ahal izanez gero, ez da balioespenik egingo, eta dauden alternatiba desberdinei buruzko informazio zehatza, dagokion erabakia hartzeko erabili diren arrazoi objektiboak eta horren izapide-egoera soilik ezagutzera ematen ahaleginduko da.

3. Herritar guztientzako informazioari dagokionez, Donostiako Udal Batzarraren eta Gobernuaren bilkuretarako deialdiak eta gai-zerrendak iragarkien taularen bidez eta udal web orriaren bidez jakinaraziko dira batez ere.

Ekintza eta erabakiak jakinarazi eta ezagutzera emateari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoaren aurka joan gabe, Udalak Udak Batzarraren eta Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiak argitara emango ditu, egoki irizten dien hedabideak erabiliz, esaterako web orria eta udalaren iragarki-taula.

4. Erakundearen informazioari eta komunikazioari buruzko liburu zuria prestatu dadila bultzatuko da.

2. SEZKIOA. Informazioa eskaintzeko udal antolamendua

8. artikulua. Herritarren Arretarako Zerbitzua.

1. Herritarren arretarako zerbitzuak Udalaren informazio-politika koordinatu, bultzatu eta horri koherentzia emango dio.

2. Informazio-eskaerak jaso eta bideratu egingo ditu, eta Udalari eta bere funtzionamenduari buruzko informazioa eta hirian egiten ari diren jardueri buruzkoa eskainiko du.

3. Zerbitzuak eskaini beharreko arreta hori presentziala, telefono bidezkoa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidezkoa izango da.

Horri begira, beharrezkoak diren giza baliabideak eta bitarteko material eta teknologikoak eskainiko zaizkio, eta emango duen zerbitzu hori arina eta eraginkorra izateko moduan antolatuko da.

4. Zerbitzu horrek eskaerak, kexak, iradokizunak, ekimenak eta proposamenak erregistratzeko eta bideratzeko ardura izango du, baina nolana ere, Kultur Etxeetan edo Gizarte Etxeetan pixkanaka zerbitzuak ezartzen joango dira auzoetako zerbitzu deszentralizatu modura.

9. artikulua. Informazio-sistemak.

1. Udalak komunikazio-plan bat prestatuko du, eta bertan, informazioaren aniztasuna eta eztabaida publikoa errazteko bitartekoak adieraziko dira.

2. Udalak udal izapideei buruzko oinarritzko gida eguneratu bat edukiko du, udal web orrian argitaratuko dena, herritarrek duten informazioa eta edozein eratako administrazio-jarduera gauzatzeko modua hobetzeko.

10. artikulua. Udalaren hedabideak.

Udalak udal hedabideak sustatuko ditu eta pertsonak horiek erabil ditzatela bultzatuko du aniztasunaren errespetuan oinarrituz. Udal hedabideak erabil daitezela errazteko, bide eta epe batzuk finkatuko dira, hedabideak dituen ezaugarrien eta agertutako interesaren arabera. Halaber, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak baliatuko dira, horien erabilpena eta garapena ahalik gehiena errazteko.

11. artikulua. Udalaren web gunea.

Udal administrazioak informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabil daitezela sustatuko du bere web gunea garatuz, ondorengo helburu hauei begira:

a) Udal administrazioarekin egin beharreko kudeaketak ahalik gehiena erraztea administrazio elektronikoko zerbitzuak ezarriz.

b) Udal gobernuaren administrazio-jarduerari buruzko eta udal erakundearen jarduerari buruzko informazio eguneratua eskaintzea.

c) Administrazioaren eta herritarren artean komunikazio-bide elkarreragile bat finkatzea.

Era berean, sinadura elektronikoaren erabilera sustatuko du Udalak, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, administrazioa modernizatzeko eta pixkanaka baina etengabe herritarrengana hurbiltzeko prozesu horren barruan.

II. KAPITULUA. PARTE-HARTZE AKTIBOA

1. SEKZIOA. Parte hartzeko eskubidea

12. artikulua. Parte hartzeko eskubidearen edukia

1. Herritarren parte-hartzea ordezkari bidezko demokraziaren osagarri eta hura sakontzeko bide bat dugu. Parte hartzeak inola ere ez du eragingo ordezkari-organoei dagozkien erabakitzehalmenak urritzea.

2. Pertsona guztiek udal eskumeneko gai publikoetan norbanako gisa nahiz kolektibo gisa esku hartzeko eskubidea dute, Arau Organiko honetan ezarritakoa betez. Udalak bermatu beharko du partaidetza berdintasun baldintzetan gertatzea; generoa, bizi zikloa, kultur zein nortasun aniztasuna, egoera sozial eta ekonomikoa, gaitasunak edo ezagupenak direla-eta normalean ordezkari bidezko txikiagoa duten kolektiboaren partaidetza bultzatzeko neurri bereziak hartuta.

3. Udalak Kapitulua honetan arautzen diren partaidetza-eskubideak benetan gauzatu daitezela sustatuko du, horiek guztiz betetzea eragozten duten oztopoak ezabatuz.

4. Udal gai publikoetan parte hartzeko eskubide hori honako beste eskubide hauek osatzen dute:

- Eskararak egiteko eskubidea.
- Ekimenak bultzatzeko eskubidea.
- Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.
- Entzunaldi publikorako eskubidea.
- Herri-kontsultarako eskubidea.
- Haldera-eskarien txanda.
- Kontseiluetan esku hartzeko eskubidea.

13. artikulua. Eskararak egiteko eskubidea.

1. Pertsona natural eta juridiko guztiek eskararak edo eskabideak egin ahal izango dizkiote Udal gobernari, Konstituzioaren 29. artikulua eta 4/2001 Lege Organikoaren arabera, udal eskumeneko edozein gairi buruz, bai eskatzaileari bakarrik dagozkion gaietan eta baita interes kolektibo edo orokorra dutenetan ere.

2. Eskara idatziz aurkeztu beharko da, eta zuzenbidean baliagarria den edozein bide erabili ahal izango da, eskatzailearen nortasuna eta eskararen helburua behar den eran egiaztatzeko modua ematen badu, Udalak erabil ditzakeen baliabide telematikoak barne. Horretarako, argi adierazi beharko dira izena, abizenak, jakinarazpenerako helbidea eta modua, Nortasun agiri nazionala edo pasaporte, eta baita eskararen helburua ere.

3. Eskabide kolektiboak eginez gero, aurreko baldintza horiek betetzeaz gainera, eskatzaile guztiek sinatu egin beharko dute, eta sinadura horren ondoan horietako bakoitzaren izen-abizenak adierazi. Pertsona horiek beren datuen konfidentzialtasuna eskatu ahal izango dute.

4. Udalak, gehienez ere 10 eguneko epean, eskabidea jaso izanaren adierazpena egingo du eta dagokionari halaxe jakinaraziko dio. Eskararak ez baditu betetzen artikulua honen 2. apartatuan ezarritako baldintzak, dagokionari 15 eguneko epea emango zaio atzemandako akatsak zuzendu ditzan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaera horretan atzera egin duela ulertuko dela, eta eskaera artxibatu dela jakinaraziko zaio horren arrazoia emanez.

5. Eskararak ez dira onartuko honako kasu hauetan:

- Horren helburua Donostiako Udalak dituen eskumenei arrotz zaienean.
- Horri buruzko ebazpena emateko, legebiltzarraren, administrazioaren edo justiziaren prozedura baten xede den titulu berezi batean oinarritu beharra dagoenean.
- Eskatutakoaren inguruan prozeduraren bat hasita dagoenean, horri buruzko ebazpen edo erabaki irmorik hartu ez bada.

Arrazoi hauetakoren batengatik onartzen ez bada, ebazpen arrazoitu bat eman beharko da 45 eguneko epean, eskaera aurkeztu den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

6. Eskaera horren izapideak egitea onartzen bada, Udalak, gehienez ere hiru hilabeteko epean, erantzun egin beharko dio eskatzaileari, eta, egoki baldin bada, horretarako hartu diren neurriak eta aurreikusita dauden jarduketak jakinaraziko dizkio.

14. artikulua. Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea

1. Pertsona guztiek udal zerbitzu publikoen funtzionamenduari buruzko kexak eta erreklamazioak aurkezteko eta iradokizunak egiteko eskubidea dute.

2. Eskubide hori Herritarren Arretarako Zerbitzuaren bitartez eta informazio-bulegoen bitartez gauzatzen da, baita erreklamazioetarako postontzien eta udalaren web orriaren bidez ere. Eskubide horiek erabiltzen dituzten pertsonak aurkeztu diren gaiei buruzko erantzun idatzi bat jasoko dute, arrazoiak azalduz, 3 hilabeteko gehienezko epean.

3. Herritarren Arretarako Zerbitzuak kexak, erreklamazioak eta iradokizunak jaso eta dagokien organora edo zerbitzura bideratuko ditu, bertan azter ditzaten.

15. artikulua. Ekimenerako eskubidea.

1. Erabakiak hartzeko ekimena: Udal hauteskundeetan sufragio aktiborako eskubidea duten herritarrak udalaren eskumeneko gaietan erabakiak edo jarduerak proposatzeko herri-ekimenaz baliatu ahal izango dira, Udal Batzarraren Araudi Organikoan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Ekimen hori, gutxienez, udalerriko herritarren ehuneko hamarrak sinatu beharko dute, eta Udal Batzarrean eztabaidatu eta horren inguruko bozketa egin beharko da, baina aurrez Udal Batzarreko Idazkari Nagusiak horren legezotasunaren inguruko txostena egin beharko du. Ekimen horrek Udalaren ekonomia arloko eskubide eta betebeharrei eragiten dienean, txosten hori Kontu Ikuskaritzako titularra den pertsonari helaraziko zaio. Era berean, eragindako jarduera-eremuari dagokion udal saileko zerbitzu teknikoek horri buruzko txosten bat egin beharko dute aldeztu aurretik. Txosten horiek hogeita hamar eguneko epean prestatu beharko dira.

Proposatutako ekimen hori Udal Batzarraren eskumenekoa baldin bada, Proposamen gisa izapidetuko da. Beste udal organo baten eskumenekoa baldin bada, Mozio gisa izapidetuko da, eta horretarako ez da aldeztu aurretik interpelaziorik egin beharko. Hori onestearen ondorioak Donostiako Gobernuarentzat agindu politiko batetik ondorioztatzen diren berberak izango dira.

2. Herritarren araugintza-ekimena: Udal hauteskundeetan sufragio aktiborako eskubidea duten herritarrek herritarren araugintza-ekimena gauzatu ahal izango dute, udalaren eskumeneko arautegi-proiektuak aurkeztuz, baina horretarako, udalerriko biztanleen ehuneko hamarrek gutxienez izenpeturik egon behar dute.

Udal Batzarraren Arautegi Organikoan aurreikusitakoarekin bat etorriz, arauak onesteko herri-ekimenak arau-proposamen gisa izapidetuko dira. Nolanahi ere, herri-ekimenaren ordezkarien txosten bat jasoko dela segurtatu beharko da, jendaurreko jakinarazpen-epean jasotako alegazioekin loturik.

16. artikulua. Herri-kontsulta.

1. Herritarrei garrantzi bereziko udal gaiei buruzko kontsulta egin ahal izango zaie, Tokiko Ogasunari buruzko gaiei buruz izan ezik.

2. Arau honen 15. artikuluan araututako ekimenek, herri-kontsultarako proposamen erantsi bat eramanez ezin dute.

3. Herri-kontsulta egiteko, Udal Batzarrak erabateko gehiengoz erabaki beharko du eta 7/1985 Legearen 71. artikuluan edo hori ordezkatzeko duen arauan aurreikusitakoarekin bat etorriz izapidetu.

16.bis artikulua. Erreferendumak ez diren hiritar kontsultak.

1.Hamasei urte baino gehiago izan eta udalerrian erroldatuta diren bizilagunek kontsultatuak izan ahalko dira, erreferendumak ez diren eta lotesleak ez diren hiritar kontsulta bidez, haiei

eragiten dieten tokian tokiko interes publikoko gaiak izan eta Udalaren eskumenekoak badira.

2. Hiritar kontsultak hiri guztikoak izango dira emaitzaren ondorioek herritar guztiei eragiten badiete eta lurralde eremu mugatukoak kontsultaren eragina eta interes eremua udalerriko lurralde jakin bati bakarrik badagokio, eragina izanez gero barrutietan, udalerrria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeetan, auzoetan eta / edo lurralde eremu txikiagoetan.

3. Pertsonen duintasuna eta haien oinarrizko eskubideak zalantzan jartzen dituzten herritar kontsultak ezin izango dira egin, ezta Toki Ogasunaren sarrera publikoei nahiz Udalaren iraunkortasun finantzarioari eragiten dieten gaiei buruzkoak ere.

4. Erreferendumak ez diren hiritar kontsultak ekimen instituzionalez edo herritarrenez egin daitezke, garapenerako araeuan jarritako modu eta baldintzetan, betiere. Udalak hiritar-kontsulta prozesuen inpartzialtasuna, gardentasuna eta zuzentasuna bermatuko du, planteamendu guztiak azaltzeari dagokionez. Era berean, herritarrei egingo zaien galdera edo galderak argiak eta zehatzak direla bermatuko du.

5. Araudi bidez edo, halakorik izan ezean, Udalbatzak onarturiko erabaki bidez ezarriko dira bozketari, zenbaketari eta prozesuaren kontrolari eragiten dieten prozedurazko alderdiak, bai eta izaera teknikoko beste kontu batzuk ere.

* 16 bis atala erantsi da, Udalbatzak 2015eko urtarrilaren 29ko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin bat.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/04/13/c1503188.pdf>

17. artikulua. Entzunaldi publikorako eskubidea.

1. Udal arduradunek, bereziki garrantzitsuak diren jardueren edo jarduketa-programen berri emateko eta herritarren proposamenak jasotzeko egun jakin batean herritarrekin batera egiten duten topaketari esaten zaio entzunaldi publikoa.

2. Deialdia Alkateak egingo du, bere kabuz edo Udal Batzarreko kide kopuruaren erabateko gehiengoak hala eskatuta, eragindako lurralde-esparruko adin nagusiko herritarren ehuneko bostek hala eskatuta, edo hiriko Gizarte Kontseiluak edo hiru Kontseilu Sektorialek eskatuta, beren arlo bereziarako interesgarriak diren gaietan. Entzunaldia eskatzen dutenek idazki bat aurkeztuko dute, arrazoiak azalduz, Udaletxeko Herritarren Arretarako Zerbitzuan, eta aztertu beharreko gaiari buruzko txosten bat erantsiko diote, baita lortutako sinadurak ere, bertan sinatzaileen nortasuna adierazita.

3. Agiriak jaso ondoren, Alkateak Entzunaldi Publikorako deia egingo du eta hori hurrengo 30 egunetan egin beharko da. Deialdiaren eta entzunaldiaren artean 15 eguneko tarte izango da.

4. Bilkurek honako funtzionamendua izango dute:

1.— Aztertu beharreko gaiari buruzko azalpena;

2.— Udal arduradun politikoaren iritzia eta jarrera agertzea;

3.— Bertaratuek beren iritzia ematea, bakoitzak bost minutuz gehienez ere. Hitza eskatu duten lagun kopurua ikusi ondoren, eta saio osoa gehienez ere bi ordukoa izango dela kontuan izanik, denbora hori mugatu ahal izango da;

5.— Arduradun politikoaren erantzuna, hala badagokio;

6.— Ondorioak, halakoak egonez gero.

18. artikulua. Herritarren galdera-eskarien txanda kide anitzeko organoen bilkuretan.

Arau honen 13. eta 14. artikuluetan jasotako eskubideak gauzatu dituzten pertsonak, erantzuna jaso ondoren edo kasu bakoitzean erantzuteko aurreikusitako epea igaro ondoren, gaiaren arabera

eskumena duen Udal Batzarreko Batzordeari eskatu ahal izango diote bertan aztertu dezatela beren eskaera, erreklamazioa edo iradokizuna.

Eskaera horri idatziz erantzutea erabaki dezake Batzordeko Lehendakariak, gehienez ere 30 egun naturaleko epearen barruan, edo bestela, eskaera egin dutenak Batzordearen dagokion bilkurara gonbidatu, beren eskaerari erantzun bat eman diezaioten. Azken kasu horretan, eskaera, kexa edo erreklamazio bakoitzeko gehienez ere bi lagun joateko baimena emango da. Batzordeko Lehendakariak, bertara joaten diren pertsoneri, eta adierazten dien denboraren barruan, beren eskaerari buruzko azalpenak emateko eskatu ahal izango die.

Eskaera, kexa, erreklamazio edo iradokizun bat aurkeztu duten pertsonak, baldin eta dagokion Udal Batzarreko Batzordean aztertu bada, batzar-bilkura batean aztertu dezatela eskatu ahal izango diote Udal Batzarreko Lehendakariari.

Eskaera horri idatziz erantzutea erabaki dezake Udal Batzarreko lehendakariak, 30 egun naturaleko epearen barruan, edo bestela, ahoz erantzutea galdera-eskarien txandan. Era berean, Lehendakariak eskaera egin duenari aukera eman diezaiolke bilkura horretako galdera-eskarien txandan bere eskaerari buruzko azalpen bat emateko. Pertsona bakar batek egingo du azalpena eta Lehendakariak ezartzen duen denbora errespetatu beharko du.

19. artikulua. Kontseiluetan esku hartzeko eskubidea.

Pertsona fisikoek eta juridikoek Kontseiluetako organoetan esku hartzeko eskubidea izango dute, Arau honetan eta Kontseilu bakoitzaren erregulazioan ezartzen den proportzioan eta ordezkarietan.

2. SEKZIOA. Parte-hartzea sustatzeko bitartekoak

20. artikulua. Parte hartzeko ereduak.

Parte hartzeko mekanismoak eta bideak osotasun integratu baten modura orokorrean ikusi ahal izatea ahalbidetzen digu udal partaidetzarako ereduak. Donostiako Udalak garatu duen eredu hori hainbat tresna eta mekanismok osatua dago, eta kasu bakoitzean eta proiektuak dituen helburuen arabera, egokiena dena erabiltzen da:

— Parte hartzeko organo, espazio eta mekanismo egonkorak, modu erregularrean funtzionatzen dutenak.

— Aldi baterako izaera duten prozesu zehatzak, hasiera eta amaiera zehatza duten proiektu jakin batzuekin lotuak.

— Gai berezien inguruko kontsultak eta parte hartzeko gune jakinak.

— Egituratu gabeko harreman eta komunikazioak.

21. artikulua. Udal ordezkariengana jo ahal izatea.

Alkateak, Udal Gobernuako kideek eta Udal Taldeek, beren giza baliabideek eta bitarteko materialek ahalbidetzen dieten neurrian, egiten zaizkien hitzordu eta arreta eskaerei erantzungo diete. Horretarako, beharrezkoak diren prozedurak prestatuko dira, eta behar bezala ezagutaraziko dira.

22. artikulua. Partaidetzarako Udal Agenda.

Herritarren partaidetza bereziki bultzatzeko eginkizuna duten jarduerak jasoko ditu Partaidetzarako Udal Agendak. Udal Gobernuaren iritziz herritarren inplikazioa izan behar duten eta Jarduketa Planean jasota dauden jarduketa guztiek osatzen dute Agenda hori. Tresna horren bidez kontseilu guztietako lan-agenden, prozesu sektorialen, aurrekontu parte-hartzaileen eta unean uneko proiektu jakinen informazioa zentralizatzen da.

23. artikulua. Parte hartzeko metodologiak erabiltzea.

Udalak partaidetza-prozesuak egin daitezela sustatuko du, udal jarduera prestatu, gauzatu eta balioesteko faseetan ahalik eta herritar gehienek parte har dezaten. Garrantzi berezia duten proiektuetan eta udal aurrekontua prestatzeko prozesuan partaidetzarako teknikak eta metodologiak eskainiko dira.

Parte hartzeko teknikak eta metodologiak ordena eta koherentzia eskaini beharko diote horiek erabiltzen diren proiektuari, baita egiteko modu jakin batzuk ere, proiektuaren mugak eta aukerak argi eta garbi zehaztuz.

24. artikulua. Aurrekontu Parte-hartzaileak.

1. Udal aurrekontuan jaso beharreko lehentasunei eta konfigurazioari buruz proposamenak, gogoeta eta eztabaida egiteko prozesuak egin daitezela bultzatuko da aurrekontu parte-hartzailearen metodologiaren bitartez, gure hiriaren premiei eta elkarteak osatzeko eta parte hartzeko dinamikari erantzungo dion eredu propio bat eraikiz.

2. Aurrekontu Parte-hartzailea sendotzea bermatzeko, eskumena duen udal organoak eredu orokor bat eta oinarrizko metodologia-arau batzuk zehaztu eta onetsiko ditu, Aurrekontuetan jaso beharreko helburu estrategiko handiak eta legegintzaldi bakoitzeko proiektuak hautatzeko prozesua ezartzeko xedez; era berean, urte bakoitzerako programa jakinetan jarduerak izango dituzten lehentasunak ere ezarriko ditu.

25. artikulua. Auzoetako partaidetza komunitariorako prozesuak.

Egoera sozioekonomiko konplexua edo hirigintza-arazo nabariak dituzten auzoetan partaidetza komunitariorako prozesuak ezarriko dira, Udalaren eta auzoko herritarren artean topaketarako eta elkarlanerako espazio pribilegiatu modura, ongizate kolektiboa erdiesteko orduan eta bizikidetzarako eta gizarte-antolamendu kolektiborako arau berri batzuk finkatzeko orduan partaidetza indartzeko xedez. Hori guztia Donostiako Gobernuak proposatuta, zinegotzien erabateko gehiengoak eskatuta edo hiriko Gizarte Kontseiluak hala eskatuta egingo da.

Arau honetan, partaidetza komunitariorako prozesuetan hartzen dira izaera integrala izanik beren helburuen artean bi maila osagarri identifikatzen dituztenak: Herritarrek gobernuaren politiken prestakuntzan esku hartzea eta auzoko bizitza sozial eta komunitarioan zuzenean esku hartzea, interes orokorrarekin konprometituta dauden gizarte-jokaeren arabera.

26. artikulua. Eztabaida-tailerrak.

Hiriko Gobernuak, beren izaera edo ezaugarri zehatzak direla medio horretarako aukera ematen duten gai jakinetan, gogoetak eta proposamenak egiteko Tailer bereziak egin daitezela sustatuko du.

Tailer horietan ondokoek hartuko dute parte: Talde politikoetako ordezkariak, alor horretako udal teknikariak, herritarren elkarteetako ordezkariak eta, oro har, herritarrek.

Tailer bakoitzaren ondorioei buruzko txosten bat prestatu beharko da, eta Alkateari, udaleko talde politikoei eta parte hartzen duten gainerako pertsonen helaraziko zaie.

27. artikulua. Interesa duten pertsonen zerrendak.

Pertsonak beren kabuz parte har dezatela sustatzeko helburuz, gai-arloen edo udal kudeaketaren araberrako erroldak sor daitezela bultzatuko da, eta horietan, nor bere borondatez eman ahal izango du izena.

Izena eman duten pertsonen berek aukeratutako eremuetako gai eta proiektu garrantzitsuenei buruzko informazioa bidaliko zaie noizean behin, eta partaidetza-prozesu jakinetan esku har dezatela bultzatuko da.

III. KAPITULUA. -PARTE HARTZEKO ESKUBIDEEN DEFENTSA

28. artikulua. Iradokizun eta Erreklamazioetarako Batzorde Berezia.

Herritar guztiek udal administrazioan dituzten eskubideak bermatzeko, Udalak Iradokizun eta Erreklamazioetarako Batzorde berezi bat sortu du, eta horren funtzionamendua Udal Batzarraren Arautegi Organikoak arautuko du, 7/1985 Legean xedatutakoaren arabera.

Udal gobernuko eta administrazioko organo guztiak, eta bereziki, Herritarren Arretarako Zerbitzua, Batzordeari laguntza ematera beharturik egongo dira.

29. artikulua. Herritarren Defendatzailearen Bulegoa.

Herritarren Defendatzailearen Bulegoa Udal Batzarrak sortuko du, aldez aurretik dagokion arau-aurreikuspena eginda, eta hala eginez gero arau organiko baten bidez araupetuko da.

III. TITULUA

PARTE HARTZEKO ORGANOAK

30. artikulua. Partaidetza Kontseiluen Sarea.

Aholku-emaile diren partaidetza-organoen sare bat antolatu da eta sare horren barruan Gizarte Kontseilua, kontseilu sektorialak eta lurraldeetako partaidetza-guneak daude. Bere eginkizunak eta funtzioak era askotako gaien inguruan eta dagokien lurraldeko jarduketa-esparruaren arabera antolatu dira eta berari esker udal politikaren arlo jakinetan (ongizatea, merkataritza, emakumea, kirolak, kultura, kooperazioa, mugikortasuna, ingurumena eta abar) edo lurralde jakin batean landu beharreko gaiei buruzko aholkularitza, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamenak jorratzen dira.

31. artikulua. Gizarte Kontseilua.

Hiriko Gizarte Kontseilua partaidetza-organo gorena da, eta hiriaren garapen estrategikoan, ekonomia, gizarte eta kulturaren garapenean eta garapen iraunkorrean eragina duten udal jardunbide politiko nagusiak zehazteko informazioa eman, azterketak eta eztabaidak egin eta aholkularitza eskaintzen du.

Aldi berean, Gizarte Kontseilua, hirian partaidetzarako dauden kontseilu sektorial, egitura eta organismo desberdinen arteko koordinaziorako gunea ere bada. Bestalde, ikuspegi eta interes desberdinak izan arren Donostiako herritarren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz elkarrekin lan egin nahi duten pertsonen topagunea da.

Gizarte Kontseilua eta dagokion funtzionamendu-erregimena bere arautegi organikoaren bidez erregulatuko dira.

32. artikulua. Kontseilu Sektorialak.

1. Hiriarentzat interesgarriak diren gai jakinetan herritarren ekimenak eta kezkak bideratzen dituzten partaidetza-organoak dira.

2. Bestelako partaidetza-sistemak egon badaitezke ere, Udalak Kontseilu Sektorialak sortuko ditu gobernu- eta jarduketa-arlo nagusietan, barne antolamendukoak jotzen dituenetan izan ezik.

3. Dagokien jarduera- edo jarduketa-sektorean inskribatutakoen %10 osatzen duten herritarren elkarteek hala proposatuta eratu ahal izango da Kontseilu sektoriala.

4. Kontseiluen osaera, antolamendua, eskumenak eta funtzionamendua beren Arau bereziei jarraituz arautuko da, eta arau horiek Udal Batzarrak onartuko ditu. Nolanahi ere, Kontseilu Sektorialek Arau honetan xedatutakoa bete beharko dute beti eta beren agintaldian lan egiteko plan bat izan beharko dute.

33. artikulua. Kontseilu Sektorialen erregulazioa.

1. Herritarren elkarteetako ordezkariak horietan parte hartu ahal izango dute, baldin eta beren helburu sozialak, xedeak edo jarduerak haien jarduketa-esparruarekin zerikusia badute. Areako Delegatu titularra eta udal Talde bakoitzak izendatutako pertsona bat arituko dira bertan.

2. Horretan parte hartuko dute, halaber, interesatuen zerrendetan ageri direnen artean zozketa bidez aukeratutako pertsona fisikoek, 27. artikulua dioen moduan, edo dagokion eremuan gizarte-ospe berezia duten pertsonak, kontseilu sektorialak hala erabakita.

3. Lehendakaritza Alkateak izango du, baina gaiari dagokion areako Zinegotziaren esku utz dezake eginkizun hori. Lehendakariordetza herritarren elkarte baten ordezkari den Kontseiluko kide batek hartuko du, haiek hala proposatuta eta Kontseiluak gehiengoz erabakia hartu ondoren.

4. Lehendakariak, Lehendakariordearen laguntzaz, Kontseilua zuzenduko du eta bere gain hartuko ordezkari egitea, deialdia egitea, eguneko gai zerrenda ezartzea, bilkurak zuzentzea, proposamenak Udalaren kudeaketa-organoei helaraztea eta organo kolegiatu baten funtzionamenduari berez dagozkion gainerako eginkizunak gauzatzea. Udaleko Idazkariak edo honek eskuordetzen duen pertsonak egingo du Idazkari-lana.

5. Urtean hiru aldiz gutxienez egingo du bilera, Lehendakariak horretarako deialdia egin ondoren, zuzenean edo bertan parte hartzen duten elkarte guztien %50 baino txikiagoa ez den kopuru batek hala eskatuta. Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, baina hala ere beti ahaleginduko dira adostasunera iristen.

6. Herritarren elkarteren bat segidako bi bilkuretara edo segidakoak ez diren hiruetara joaten ez bada, indarrean dagoen ekitaldian baja eman ahal izango zaio, hurrengo urtean berriro sartzeko aukera izan badezake ere. Horri baja emateko erabakia Kontseiluak hartuko du gehiengo soilez.

* 33. artikuluko 1. atala aldatu da, Udalbatzak 2015eko urtarrilaren 29ko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin bat.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/04/13/c1503188.pdf>

34. artikulua. Lurralde-partaidetzarako guneak.

Hiriko kontseiluen eta kontseilu sektorialen zeregina osatuko duen Sistema eraginkorra eta operatiboa antolatu ahal izateko, lurralde-partaidetza hurbileko ekipamenduen bidez garatuko da.

Dauden ekipamenduak oinarri harturik, partaidetzarako lurralde-guneen sare bat eratuko da, herritarren partaidetza bultzatu eta sustapen komunitarioa lortzeko.

Aginduzko araua onartu ondoren, eta lurraldeko partaidetza-dinamiken arabera komenigarria dela ikusiz gero, auzo edo barrutietako kontseiluak sortuko dira, udal kudeaketari buruzko partaidetza-, kontsulta- eta proposamen-organoak izan daitezten; era horretan, auzo edo barruti bateko partaidetza hobetu ahal izango da udal gaien kudeaketa eta hobekuntzari dagokionez.

Halaber, hurbileko zerbitzu eta ekipamenduen kudeaketarako araudiaren barruan (esate baterako Kultur Etxeetan, Gaztelekuetan, auzoetako Kirol instalazioetan eta beste hainbatetan) herritarrek eta elkarteek Zentroko jardueren programazioan eta ebaluazioan parte hartzea sustatuko da.

IV. TITULUA

GIZARTE ZIBILA INDARTZEA

I. KAPITULUA. UDAL POLITIKAK

35. artikulua. Jardunbide egokia.

Jardunbide egokiak aurkitu, aztertu eta transferitzea garrantzi handiko eginkizuna da udal kudeaketa publikoa egiteko eta kalitate handiagoko demokrazia baten inplementazio-politiketan aurrera egiteko.

Udalak demokrazia parte-hartzailea lortzeko jardunbide egokia sustatuko du, erakundeek eta herritarren elkarteek bultzatzen duten jardunbide egokiari jarraituz.

Herritarren partaidetzarako jardunbidea egokia alde zuzeneko proiektu eta plangintza batean oinarritua dago; era horretan, behar bezala erantzuten die unean uneko arazoei, horiek egiaztatu, aztertu eta ebaluatzeko aukera ematen baitu.

36. artikulua. Herritartasun-balioetan hezteak.

Udalak herritarren artean informazio- eta heziketa-kanpainak egiteko ekimenak sustatuko ditu; horrela, balio demokratikoak eta partaidetza gizarte-balio gisa garatuko dira. Kanpaina horiek abian jartzeko herritarren elkarleen eta udal taldeen arteko adostasuna eta lankidetzak bilatuko ditu.

37. artikulua. Boluntarioak.

Borondatezko lana 17/1988 euskal legearen 2. artikulua adierazitako eran sustatuko da. Udalak, hiriko eta munduko beste herri batzuetako zerbitzuekin, ekitaldiekin eta jarduerekin bat eginez, beharrezko ekimenak bultzatuko ditu herritarrek borondatezko lankidetzan parte har dezaten.

38. artikulua. Bitartekaritza komunitarioa.

Elkarren arteko bizikidetzak egokia sustatu eta herritarren bitartekaritzarako eta erantzukizuna partekatze guneak sortu nahirik eta, era horretan, eremu publikoko gatazkak hauteman, konpontzen saiatu eta gizarte-kohesio handiago bat lortzeko asmoz, Udalak bitartekaritza komunitarioarako sistemak eta prozesuak sustatuko ditu, borondatez onartutako ekimen gisa.

39. artikulua. Hiritar merezimendua.

Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko egindako lana, eskainitako dedikazio berezia eta Hiriaren alde egindako aparteko zerbitzuak aitortzeko, urtero hiritar merezimenduaren Dominak emango dira.

Dominak emateko modua eta erregimena Ohore eta Goraipameneren Arautegiaren bidez arautuko dira, eta ospe handiko ekitaldi baten barruan banatuko dira, goretsitako pertsona eta elkarleen lana nabarmentzeko.

II. KAPITULUA. ELKARTEGINTZA SUSTATZEA

40. artikulua. Elkarleen sarea.

Udalaren iritziz, Donostiako elkarleen sarea hiriko gizarte-ondasunaren funtsezko osagaietako bat da.

Horregatik, elkartegintzaren garapena sustatzeko beharrezko baliabide publiko guztiak xedatuko ditu; izan ere, elkartegintza pertsonak bere hiriarekin duten konpromisoaren adierazpen kolektiboa baita, eta horrek gainera balio erantsia du, interes publikoko xedeak betetzen baititu, herritarrei kalitateko proiektuak eskainiz, eta talde horiei aukera emanez beharrezko informazio-, kontsulta- eta partaidetza- bideak gara ditzaten, gai publikoen ezagutza, mobilizazioa eta azalpena sustatu ahal izateko, erantzukizunak partekatuz lan egiteko eta hiriaren eraldaketa egiteko.

Udalak hirian interes publikoa duten gaietan parte hartzeko bidea emango die, eta burutzen duten eginkizun publikoari dagokionez demokratikoak, eraginkorrak eta arduratsuak diren elkarleak sustatzeko beharrezko baliabideak bultzatuko ditu, sarean lan eginez eta beren autonomia gordez sendotu daitezten.

Elkarteren sarearen barruko harremanak errazteko, Departamentu eskudunak hirian diharduten taldeen fitxategia sortu eta eguneratua edukiko du.

Aipaturiko fitxategiak ondoko helburuak ditu:

— Udalerriaren dagoen elkarleen sarea ezagutzea.

— Arau hauetan adierazitako eskubideak erabiltzeko erraztasunak ematea, kasu bakoitzean zehazten den moduan.

— Udalari eta, oro har, Donostiako gizarteari aukera ematea une oro taldeen ordezkari buruzko daturik garrantzitsuenak, beren jardueren interes-maila edo herri-erabilera ezagutu ditzaten.

41. artikulua. Elkartegintza Sustatzeko Programa.

Udalak, elkarleekin elkarlanean jardunez, hirian elkartegintza hobeto egituratzeko eta beren gaitasun operatiboa indartzeko beharrezko neurriak jasoko dituen programa bat prestatuko du.

Programa horren barruan argi adieraziko dira lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak; bestalde, hori behar bezala prestatzeko gainerako udal baliabide estrategikoekiko koordinazioa sustatuko da.

Halaber, Udalak elkarte eta kolektibo horien zuzendaritza-organoetan gizon eta emakume kopuru orekatua egon dadin lan egingo du.

III. KAPITULUA. HERRITARREN ELKARTEAK

1. SEKZIOA. Herritarren elkarten definizioa eta erregistroa

42. artikulua. Definizioa.

3. Arau honen ondorioetarako, herritarren elkarteak hauexek dira: Elkarte-izaera duten pertsona juridikoak, irabazi-asmorik gabekoak eta Elkartzeko eskubidea arautzen duen erregimen orokorrarekin bat datozenak, hala nola kirol klubak eta fundazio pribatuak, baldin eta beren egoitza edo jarduera nagusia udalerrian kokatua badago eta beren funtsezko helburua, Estatutuetan jasota duten moduan, herritarren interes orokorrak edo sektorialak ordezkatzeko eta sustatzea eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea bada, eta betiere borondatea erakutsi eta konpromisoa hartzen badute Udalarekin batera lan egiteko partaidetza-prozesuen garapenean eta interes orokorreko udal jardueren garapenean.

4. Aurreko atalean deskribaturiko pertsona juridikoek herritarren elkarte-izaera lortu ahal izango dute, eta horretarako ondoko artikuluetan araututako Erregistroan dagokien izen-ematea egin beharko dute.

43. artikulua. Herritarren Elkarten Erregistroa.

Herritarren Elkarten Erregistroa erregistro bakarra da, 41. artikuluko kolektiboen Fitxategia ez bezalakoa, eta bertan aurreko artikuluan adierazitako pertsona juridikoak inskribatu ahal izango dira. Udal Batzarraren Idazkaritza Orokorraren mende egongo da, eta bere kudeaketa Herritarren Partaidetzarako Departamentuak gauzatuko du.

Erregistroko datuak publikoak dira eta interesaturiko edozein pertsonak kontsultatu ahal izango ditu, indarreko legeriak ezarritako mugak kontuan izanik.

44. artikulua. Izena eman dezaketen elkarteak.

43. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eta ondoko artikuluetan adierazitako jardunbidea betetzen duten pertsona juridiko guztiek eman ahal izango dute izena Herritarren Elkarten Udal Erregistroan.

45. artikulua. Eskaera-orria eta aurkeztu beharreko agiriak.

Interesaturiko pertsona juridikoek Herritarren Arretarako Zerbitzuan eskatu beharko dute izen-ematea, eredu arautu baten bidez, eta ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzte:

— Partaidetza-prozesuen garapenean eta interes orokorreko udal jardueretan Udalarekin elkarlanean aritzeko borondatea dutela eta horretarako konpromisoa hartzen dutela dioen adierazpena.

— Elkarte, kirol klub edo fundazioaren estatutuak; horietan argi agertuko dira beren izena, jarduteko lurralde-eremua, helbide soziala, helburuak eta jarduerak, ondarea, erabili ahal izango dituen baliabide ekonomikoak eta erakundearen funtzionamendu demokratikoa bermatuko duten irizpideak.

— Izen-ematea egiaztatzen duen agiria eta Elkarten, Fundazio pribatuen edo kirol klubaren Erregistroan duen zenbakia.

— Erakundeko gobernu-organoa osatzen duten pertsonen izena eta N.A.N.

— Elkartearen helbide soziala.

— Hasitako urteko aurrekontua.

— Hasitako urtean garatu beharreko jardueren programa.

— Bazkide-kopurua egiaztatzen duen ziurtagiria, kirol klubak eta elkarteak direnean.

Adierazitako agiriak nahitaez aurkeztu beharko dira izena eman ahal izateko, lehendik Udalak ez baditu behintzat.

46. artikulua. Eskaerari buruzko ebazpena.

1. Izena emateko espedientei buruzko ebazpena eta jakinarazpena 30 laneguneko epean egingo da, izena emateko eskaera Erregistroan sartu den egunetik aurrera kontatzen hasita.

2. Eskabidearen izapideak, ebazpena eta baliabideen erregimena Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakora egokituko dira.

3. Izena emateko eskaera onartzen ez denean hori behar bezala arrazoitu beharko da, eta izena emateko eskaturiko baldintzetakoren bat egiaztatu ez izana hartuko da funtsezko arrazoitzat.

4. Izen-ematea onartzen duen ebazpenean esleituriko inskripzio-zenbakia adieraziko da. Izen-ematea Ebazpenaren data berean hartuko da egindakotzat, eta une horretatik aurrera eskaera egin duen elkarteak herritarren elkarte-kalifikazioa erabili ahal izango du.

47. artikulua. Datuak aldatzea eta izen-ematea urtero berritzea.

3. Erregistroan sartutako elkarteek inskripzioko datuetan egindako aldaketa guztien berri eman behar dute, aldaketa egin eta hurrengo hilabetearen barruan.

4. Urte bakoitzeko lehen lauhilekoan jakinaraziko dute Erregistroan zein den urteko jardueraprograma eta bazkide-kopuru eguneratua kirol elkarte eta klubetan, eta baita zein diren aurreko ekitaldiko emaitzak eta zein egunetan egin zuen batzarrak edo Patronatuak azken bilera bere gobernu-organoak aukeratzeko, elkartearen Estatutuen arabera.

48. artikulua. Herritarren elkarteak ezagutzea.

1. Inskribaturiko elkarteak errazago ezagutu eta aztertu ahal izateko, elkartearen jarduera eta barne-funtzionamenduari buruzko datu garrantzitsu guztiak sartu ahal izango dira herritarren elkartearen Erregistroan. Nolanahi ere, jasotako udal diru-laguntzak ere sartu beharko dira.

2. Erregistroan ageri diren datuak, bertan inskribatutako elkartei buruzkoak, interesatuta dauden hirugarrenen emanez ahal izango zaizkie, datu pertsonalak babesteari dagokionez indarrean dagoen araudia betez.

3. Herritarren elkartearen Erregistroaren eta estatu eta autonomietako Elkartearen Erregistroaren artean lankidetzaren egokia ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

49. artikulua. Erregistroan baja ematea eta ondorioak.

4. 48. artikuluan adierazitako eginbeharrak betetzen ez badira, baja hartu beharko da Erregistroan, eta inskripzioari berez dagozkion eskubideak galduko dira; nolanahi ere, eragindako erakundeari entzun egingo zaio alde aurretik, egokiak iruditzen zaizkion alegazioak egin ditzan, hamabost eguneko epean gehienez ere. Dagokion ebazpenaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, 30/1992 legean ezarritakoaren arabera.

5. Era berean, Udalak baja eman ahal izango die ofizioz inolako jarduerarik egiten ez duten elkartei. Horretarako, dagokion espedientea izapidetuko da, eta bertan, nolanahi ere, Elkarte interesatuari entzunaldia egiteko alde aurretik hamabost eguneko epea jasoko da.

6. Elkarteak idatziz hala eskatzen badu, Erregistroan egindako izen-emateari baja emango zaio, adierazitako ondorioekin.

2. SEKZIOA. -Herritarren elkartearen eskubideak eta betebeharrak

50. artikulua. Herritarren Elkartearen eskubideak.

Herritarren elkarteek, Arau honetan adierazitako eran, ondoko eskubideak izango dituzte:

— Elkartearen helburuarekin zerikusia duten gaien inguruko udal xedapen orokorrak prestatzeko prozesuan parte hartu ahal izango dute eta, zehazki, jendaurreko jakinarazpen-epea noiz hasiko den jakinaraziko zaie beren helbidean.

— Egiten diren eztabaida-tailerretan ordezkatuak egoteko eskubidea dute.

— 32. artikuluan aurreikusitako eran, kontseilu sektorialen eraketa proposatzeko eskubidea dute.

— Erakundeekin batera herritarren partaidetzarako jardunbide egokiaren inplementazioa eta garapena sustatzeko eskubidea dute.

— Hiritartasun-baloietan hezten laguntzeko eskubidea dute.

— Udalak ematen dituen sarien hartzaile izateko eskubidea dute, dagokien arautegian aurreikusitako moduan.

Era berean, espedienteren batean interesatua dagoen edo dagokion izapidean alegazioak aurkeztu dituen herritarren elkarte batek gai hori aztertuko duen Udal Batzarreko Batzordearen bilkuran parte hartzeko eskatu ahal izango du, gai-zerrendaren arabera berari interesatzen zaion espedientea aztertu behar denean. Horretarako eskaera, dagokion bilkurarako deialdia egin eta hurrengo 48 orduren barruan egingo da idatziz. Idazki horretan herritarren elkarteak interesatzen zaion gaia adierazi eta bilkuran parte hartuko duten ordezkariak adieraziko ditu; gehienez bi ordezkari izango dira. Lehendakariak egiaztatu egingo du elkarte eskatzailea benetan interesatua dagoela edo alegazioak egin dituela. Hori egiaztatu ondoren, bilkuran parte hartzeko gonbidapena egingo dio elkarte eskatzaileari.

Gonbidaturiko herritarren elkarteen parte-hartzea Lehendakariak baimendu beharko du; parte-hartze bakarra izango da eta eguneko gai-zerrendari dagokion puntuan egingo da, eztabaida hasi aurretik. Parte-hartze horren iraupena mugatua izango da, Lehendakariak hala erabakita, bilkurarako erabakitako parte-hartzeen kopurua kontuan izanik.

51. artikulua. Udalaren baliabide eta bitartekoak eskuratzea.

Herritarren elkarteak, Herritarren Arretarako Zerbitzuan eskaera egin ondoren, udal baliabideak eta bereziki lokalak erabiltzeko aukera izango dute.

Era berean, Udalak sustaturiko prestakuntza-ekintzetan parte hartu eta beharrezko baliabideak eskuratu ahal izango dituzte, diru-laguntzetarako deialdiaren bitartez, interes orokorreko jarduerak sustatzeko.

Udalak herritarren elkarteentzako diru-laguntzak egokitu ahal izango ditu, emakume-ordezkaritza txikia duten elkarteetako zuzendaritza-organoetan emakume-kopurua handitzeko neurriak hartzen dituzten neurrian.

52. artikulua. Udal interes publikoaren adierazpena.

Herritarren elkarteek udal interes publikoa dutela adierazi ahal izango da, baldin eta horien helburu sozialak eta egiten dituzten jarduerak udal eskumenen osagarri badira, eta Udalarekin batera elkarlanean aritzen badira bere politiken inplementazioan.

Adierazpen hori lortu nahi duten herritarren elkarteek ondoko baldintzak egiaztatu beharko dituzte:

— Beren estatutuetan adierazitako helburuetan herritarren interes orokorrak sustatzea eta honako alor hauek jorratzea: Gizartea, hezkuntza, gizaldeko ekintzak, zientzia, kultura, kirola, osasuna, giza eskubideen sustapena, gizarte-laguntza, garapenerako lankidetzak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa, ingurumenaren babesa, iraunkortasuna bultzatzen duten ekimenak, Agenda 21 garatzekoak, gizarte-ekonomia edo ikerketa bultzatzekoak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzekoak eta antzeko ezaugarriak dituzten guztiak.

— Udal interes publikoa eta soziala izatea hirian bizi diren pertsonentzat, eta egiten dituzten jarduerak beren bazkideentzat bakarrik ez izatea, edozein herritarrentzat zabalik egotea.

— Elkartearen ordezkari-organoen barruko kideek ordainsariak jasotzen badituzte, ez ditzatela horiek jaso fondo publiko edo diru-laguntzen kontura.

— Giza baliabide eta bitarteko material egokiak eta antolamendurik aproposena izan ditzatela, erakundearen funtzionamendu demokratikoa eta estatutuetan adierazitako helburuak beteko direla ziurtatzeko.

— Behar bezala eratuta, dagokien Erregistroan inskribatuta eta funtzionamenduan egotea, eta beren estatutuetan adierazitako helburuak etenik gabe eta eraginkortasunez betetzen arituak

izatea, eta udal erabilera publikoa adierazteko eskaera aurkeztu aurreko bi urteetan gutxienez lehenago adierazitako baldintza guztiak bete izana.

53. artikulua. Udal interes publikoa adierazteko espedientea.

1. Udal erabilera publikoa adierazteko jardunbidea Herri Administrazioen Araubide juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legean xedatutakoaren arabera araupetuko da. Interesaturiko Erakundeak hala eskatuta abiaraziko da, Alkatetzari zuzendutako eskabide baten bidez, eta horri ondoko dokumentazioa erantsiko zaio:

— Bazkide-kopuruari buruzko ziurtagiria, erabileraren adierazpena eskatzen den unean.

— Erakundeak eskabidea egin aurreko bi urteetan Udalarekin egindako jardueri, hitzarmenei, itunei edo antzeko lankidetzajardueri buruzko txostena.

— Eskatutako adierazpen horren egokitasuna behar bezala balioesteko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri, 53. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

2. Izapidetzen den espediente horri beste Herri Administrazio batzuetatik eta Udal Zerbitzuetatik datozen beste txostenak gehituko zaizkio, erakundearen jarduera-sektorearen edo sektoreen arabera. Gobernu Batzordeak, egoki den ebazpena emango du, hori behar bezala arrazoituz. Herritarren elkarte batek interes publikoa duela dioen ebazpena ofizioz inskribatuko da Herritarren Elkartearen Erregistroan.

54. artikulua. Udal interes publikoaren adierazpenak berekin dituen eskubideak.

Herritarren elkarte bat udal interes publikokoa dela adierazteak esan nahi du elkarte horrek eskubidea duela bere agirietan «udal interes publikokoa» aipamena erabiltzeko eta aldi berean erabilgarritasun publikoaren adierazpena lor dezakeela, legeria sektorialean aurreikusitako onura guztiekin.

55. artikulua. Udal interes publikoaren adierazpena baliogabetzea.

Udal interes publikoaren adierazpena egiteko emandako arrazoietakoa bat desagertzen denean edo Elkartearen jarduera adierazpen horrek dakartzan eginbeharrekin bat ez datorrenean, adierazpena baliogabetzeko jardunbideari ekingo zaio, eta hori azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta gainerako araudi aplikagarrian aurreikusitako administrazio-jardunbidearen arauari egokituko zaie.

Herritarren Partaidetzarako Departamentuak abiaraziko du espedientea, bere ekimenez, beste udal zerbitzu batzuek egindako eskaera arrazoituaren arabera edo, bestela, interesaturiko edozein pertsonak salatuta. Horri hasiera eman ondoren, egoki jotzen diren espedienteak eskatuko zaizkie udal zerbitzuei, dagokion Kontseilu Sektorialari eta beste herri Administrazio batzuei, beharrezkoa dela iritiz gero. Interesaturiko elkarteari entzuteko izapidea bete ondoren, ebazpen-proposamena egingo da, Udal Gobernu Batzordeak hala erabakita, onets dezaten eta gero Erregistroan idatz dezaten.

56. artikulua. Jarduera Programa.

Urtero, urtarrilean, eta Erregistroaren kudeaketaz arduratzen den unitateak hala eskatuta, herritarren elkarteek hasitako urterako aurreikusitako jarduera-programa eta hori gauzatzeko dituzten baliabideak erakutsiko dituzte memoria labur baten bidez. Era berean, eskatzen dizkieten erregistro-datu eguneratuak eman beharko dituzte.

57. artikulua. Erantzukizuna.

Herritarren elkarteek udal instalazioen erabileraren eta horietan egin ditzaketen kalteen ardura eta erantzukizuna izango dute.

58. artikulua. Ez-betetzea.

Eginbehar hauek betetzen ez badira, elkarte horri baja eman ahal izango zaio Erregistroan, kontraesaneko espedientea izapidetu ondoren.

Lehen xedapen gehigarria. Udal jarduerak sustatzea.

Udalak, herritarren partaidetzarako plan zuzendariak ezarriko duen esparruaren barruan, behar diren jarduketak guztiak sustatuko ditu udal antolamendua ahalik eta argiena eta malguena izan eta herritarren ekimen eta proposamenetara zabalik egon dadin; aldi berean, horri esker herritarren erakunde autonomoak indartu eta pertsonen beharrezko prestakuntza eskainiko die, hiriko gai publikoetan hobeto eta gehiago parte hartzeko baliabide eta bitarteko egokiak erabiltzeko modua izan dezaten.

Bigarren xedapen gehigarria. Topaketa eta batzarretan parte hartzea.

Udalak gogoz sustatu eta parte hartuko du, herritarren mugimenduekin eta gizarte zibilarekin batera, printzipio horiek defendatzen dituzten nazio eta nazioarteko Topaketa eta Jardunaldietan. Udalak beharrezko neurri guztiak hartuko ditu gomendio horiei jarraitzeko eta Udal Jardunbide Egokia, Tokiko Agenda 21, Hiriko Plan Estrategikoa, Plan Integralak eta Garapen Komunitariokoak abian jartzeko, eta oro har, printzipio horiek defendatzen dituzten udalaz gaineko Foro eta Itunekin bat egiteko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Udal erabilera publikoaren adierazpena erdiestea.

Arau hau indarrean jarri baino lehenago udal erabilera publikoaren adierazpena lortu duten elkarteek adierazpen horri eutsiko diote bertan adierazitako eran eta moduan.

Lehen xedapen iragankorra. Herritarren Elkarteek Erregistroan izena emateko baldintzak egiaztatzea.

Arau hau indarrean jartzen den egunean Elkarteek Udal Erregistroan izena emana duten Elkarteek eta gainerako taldeek udal Fitxategian inskribatuta jarraituko dute.

Elkarteek Udal Erregistroan sartuta dauden eta herritarren elkarte kalifikazioa lortu nahi duten Elkarteek dagokien eskaera egin beharko dute, eta horretarako eskatuko dizkieten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Bigarren Xedapen Iragankorra. Kontseiluen funtzionamendu-arauak eta partaidetza-sistemak.

Donostiako Udaletxean Herritarren Partaidetzara bideraturiko Kontseilu eta organo guztiek 6 hilabeteko epea izango dute beren eginkizunak, helburuak eta funtzionamendu-erregimena Arautegi honetan ezarritako arauetara egokitzeke.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Baliogabeturik geratzen dira 1997ko urtarrilaren 31ko batzarren erabakiz onartutako Herritarren Partaidetzarako Arautegia eta 1998ko abenduaren 22ko Erabakiz onartutako Elkarteek Udal Erregistroaren Arautegia.

Amaierako lehenengo xedapena.

Arau honetan jasotako herritarren partaidetzarako erregulazioak ez ditu eragozten gai batzuetan adibidez hirigintza edo ingurumen arloan sektorialki adierazi eta araututako eskubideak.

Amaierako bigarren xedapena.

Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta handik hogeitau egunetara jarriko da indarrean.